

## SICUE BIZIRAUPEN GIDALIBURUA 2021/2022

(2021-10-06)

### Zure mugikortasuna hasi baino lehen

- [Zure norako unibertsitatea](#)
- [Norako unibertsitatearekin komunikazioa](#)
- [Matrikula Eskolan egiten duzu](#)
- [Nork antolatuko ote du nire bidaia, ostatua, etab?](#)
- [Egiaztagiriak eta aseguruak](#)
- [Bekak eta laguntza ekonomikoak](#)

### Norakoan zaudenean

- [Akordio Akademikoaren aldaketak](#)
- [Egonaldi-hasieraren galdeketa eta ziurtagiria](#)
- [GrALren fitxa](#)
- [Urrutiko azterketak](#)
- [Egonaldia luzatu/murriztu egin nahi dut](#)
- [Eskolako Idazkaritzarekin tramiteak](#)

### Zure egonaldia bukatzerakoan

- [Egonaldi-amaieraren galdeketa eta ziurtagiria](#)
- [Eskolan edo Errektoreordetzan eman behar duzun dokumentazioa](#)
- [Irakasgaiak baliozkotzea](#)
- [GrAL baliozkotzea](#)

### Eskolarekin harremana

## Zure mugikortasuna hasi baino lehen

### Zure norako unibertsitatea

[Errektorordetzaren](#) instrukzioak arreta handiz irakurri ostean, eta emandako plaza GAUR-ean onartu ondoren, zure mugikortasuna prestatzen hasi behar duzu:

1. antolatzen diren informazio-bilera guztietara zoaz
2. zure posta elektronikoa sarritan begiratzen duzu (komunikazio osoa email-ez egingo da)
3. zure norako unibertsitateari buruzko informazioa bere webgunean bilatzen duzu. Aurreko urteetan hor egon diren ikasleei ere galdetzen diezu (haien datuak emango dizkizugu, plaza-esleipen prozedura bukatuta dagoenean).

Gogoratu norakora joan baino lehen 1. eta 2.eko irakasgai guztiak gaindituta izan behar dituzula. Uztailean irakasgairen bat pendiente baduzu, mugikortasunari uko egin beharko diozu.

ADI EGON! Edozein ziogatik emandako mugikortasuna egiten ez baduzu, GAUR-ean uko egin beharko duzu argi eta garbi, eta [sicue.eib@ehu.eus](mailto:sicue.eib@ehu.eus)-i berria eman behar izango diozu. Horrela egiten ez baduzu, Errektorordetzak penalizazioa ipiniko dizu, eta ezin izango duzu mugikortasuna eskatu aurrerago.

### Norako unibertsitatearekin komunikazioa

Zure norako unibertsitatean onarpena eskatzeko:

1. Eskatzen dituen dokumentuak, betetzeko prozedura eta berreste-datak egiaztatzen dituzu norako webgunean, eta [sicue.eib@ehu.eus](mailto:sicue.eib@ehu.eus)-i esaten dozu.
2. Zure mugikortasunaren eduki akademikoa zuzendariordearekin, Saioa Herrero, adosten duzu.
3. Dokumentazioa osoa prestatzen duzu. Har ezazu kontuan:
  - a) Aurreko Konpromisoa GAUR-ean egingo duzu, zuzendariordearekin aurrez adostutako datuekin. Unibertsitate-trukean sartzeko zara eta Konpromisoa Egin atalera zoaz. Eskolako zein norakoko irakasgaien datuak sartzeko dituzu, eta gero haien arteko erlazioa egiten duzu, zuzendariordearekin aurrez adostu duzun bezala, zure egonaldia bukatzean baliozkotzea egin ahal izateko.  
  
Informazioa grabatu ondoren, Akordio Akademikoa sortzen da. Gogora ezazu zuzendariordeari mezu bat bidali behar diozula, berak akordioa baliozkotzeko. Behin hori eginda, dokumentuak inprimatu eta sinatu behar dituzu, gero Eskolako Nazioarteko Harremanen Bulegoan eman ditzazula.
  - b) Gu arduratuko gara espediente akademikoaz. Baina zure ikasketen parte bat beste unibertsitate batean edo UPV/EHUko beste ikastegi batean egin baduzu, ikasketa horien jatorrizko ziurtagiri bat eman beharko diguzu.
4. Eskaera egiiten duzu:
  - Zure norako unibertsitateak, dokumentazioa postaz edo posta elektronikoz bidaltzeko eskatzen badu, geu arduratuko dugu bidaltzeaz. Dokumentazio osoa Eskolako Nazioarteko Harremanen Bulegona eman behar izango duzu, esango dizugun datan.
  - Onarpen-tramitea "online" bada eta dokumentaziorik bidali behar ez bada, eskatu [sicue.eib@ehu.eus](mailto:sicue.eib@ehu.eus)-i eman behar dizkizugun dokumentuak eta posta elektronikoz bidaliko dizkizugu. Online prozesua bukatzean ez ahaztu [sicue.eib@ehu.eus](mailto:sicue.eib@ehu.eus)-i esatea.

Behin norako unibertsitatearen onarpena jasota, haiek emandako instrukzioei jarraitu behar izango diezu. Aldez aurretik abisatzea komeni da, noiz helduko zaren haiek jakiteko.

### **Matrikula Eskolan egiten duzu**

Mugikortasuna hasi bain lehen, Eskolan matrikulatu egin behar duzu, beste ikasleek baino data berberetan. Aurreko Konpromisua bete izan duzunez, horretan aipatzen diren irakasgaiak agertuko zaizkizu automatikoki matrikula egiteko, baliozkotzeko direla adieraziz. Aurreko kurtsoetako irakasgaiak badituzu, matrikulan gehitzen dituzu, Eskolan haietako azterketak egiteko. Badakizu sistemak ez dizula utziko matrikula egiten, kreditu gehiegi hartzen badituzu: kasu horretan, jar zaitez harremanetan Eskolako Idazkaritzarekin baimena ikas dadila.

GrALa norakoan egingo baduzu, gogoratu ezin izango duzula matrikulatu irakasgai guztiak gaudituta eta Lanaren ez diren kreditu guztiak eginda izan arte. Edozein ziogatik Lana mugikortasuna egiten duzun ikasturte akademikoan baliozkotu egiten ez baduzu, hurrengo ikasturterako matrikula egin behar izango duzu berriro. Beraz, informa zaitez aurretik [matrikulako tramiteei buruz](#), Eskolako edozein ikaslek bezala egingo duzularik.

OSO GARRANTZITSUA: Zure egoera akademikoarekin erlazionatutako edozein ziogatik matrikula egin gabe joango bazara, eman ezazu abisua [sicue.eib@ehu.eus](mailto:sicue.eib@ehu.eus) helbidean norakora irten baino lehen.

### **Nork antolatuko ote du nire bidaia, ostatua, etab?**

Gu Eskolako Nazioarteko Harremanen Bulegoa gara, ez gara bidaia-agentzia bat. Zure bidaia antolatzea zure ardura da, han egoteko zure norakoko unibertsitatean jarritako datak kontuan hartu behar dituzulako.

Ostatua norakoan zuk zeuk konpondu behar duzu, zure norako unibertsitateak emandako informazioarekin. Egin lehenbailehen, gai hau oso konplikatu izan ahal da zenbait norakoetan.

### **Egiaztagiriak eta aseguruak**

Zuen norako unibertsitatera joatean, matrikularen frogagiria eta truke-ikaslea zarela frogatzen duen ziurtagiri ofiziala eraman behar dituzu, GAUR-etik atera dezakezu.

[Erantzunkizun Zibilaren Aseguru](#) bat behar baduzu, gure Unibertsitateak kontratatzen du ikasleentzat (gure webgunetik atera dezakezu), eta norako unibertsitateetan egin ditzakezun apurketak estaltzen ditu. Unibertsitate batzuetan, laborategietan sartu ahal izateko baino lehen aseguru frogaz dezagula eskatuko dizute. Beste batzuek, berea kontratatzea behartzen dute. Informa zaitez irten baino lehen!

### **Bekak eta laguntza ekonomikoak**

Bekak ez dira Eskolatik kudeatzen, Koordinazio eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak arduratzen da horretaz. Informazio gehiagorako, haien [webgunera](#) jo dezakezu.

## Norakoan zaudenean

### Akordio Akademikoaren aldaketak

Zure norakora heltzean, zure Akordio Akademikoa aldatu behar baduzu, mezu bat bidali behar duzu [sicue.eib@ehu.eus](mailto:sicue.eib@ehu.eus) helbidera, beste berri bat proposatuz eta aldaketan zioa justifikatuz (ordutegi teilakatzek, emate-hizkuntza, eduki erreala ez da zirudiena, jada ematen ez diren irakasgaiak...). Behin betiko Akordio Akademikoa [sicue.eib@ehu.eus](mailto:sicue.eib@ehu.eus) helbidera bidaltzen duzu.

Aldaketa guztiak GAUR-ean sartuko dira. Sorturiko dokumentu berriak deskargatu behar izango dituzu, bai zuk bai zure norako unibertsitateak sinatzeko, eta gero .pdf formatoan bidali behar izango dizkiguzu.

### Egonaldi-hasieraren galdeketa eta ziurtagiria

Zure mugikortasunaren hasieran, mezu bat bidaliko dizugu, online galdeketa labur bat betetzeko eskatuz: galdeketa honek, mugikortasunaren prestakuntzarekin zerikusirik duten aspektu guztietan urtez urte hobetzen laguntzen digu, mezuan ezarritako epean bete behar duzu. Seihileko bat baino aldi luzeago baterako irtengo bazara, mezu antzekoa jasoko duzu zure egonaldian zehar, oraindik norakoan zauden bitartean zuzendu daitezkeen arazoak antzemateko balio izango duen beste galdeketa bat bete dezazula.

Bestalde, norakora heltzean, egonaldi-hasiera ziurtagiria sina diezazutela eskatu behar duzu (GAUR-ean duzu eredia), gero kolorez eskaneatuta [seneca@ehu.eus](mailto:seneca@ehu.eus) helbidera bidali behar duzu,.

### GrALaren fitxa

Zure egonaldian GrALa egingo baduzu, mezu bat jasoko duzu fitxa bat bete dezazula eskatuz. Ezarritako epean [sicue.eib@ehu.eus](mailto:sicue.eib@ehu.eus) helbidera bidali behar duzu dokumentua, bete ondoren. Fitxa hau ezinbestekoa da Lana sisteman alta emateko.

### Urrutiko azterketak

Zure norako unibertsitatean Eskolako azterketa bat egitea ez da eskubide bat. Eskolako irakasleek ez dute prozedura horri jarraitzeko beharrik, eta kontuan izan behar duzu zuk hartzen dituzula prozesu honetarako berezko arriskuak (zerbitzari-hutsa, originalaren galera postan, etabar).

Gainera, kontuan hartu behar duzu urrutiko azterketak atzerrian egitea kurtso osorako irteten diren ikasleei soilik baimentzen zaiela, hurrengo murrizketekin:

- Trukea egiten den titulazioko irakasgaiak izan behar dira
- Bi azterketa bakarrik eskatu ahal izango dira gehienez egonaldian zehar

Baldintza hauek betetzekotan, eta urrutiko azterketa bat egiteko eskatu nahi baduzu, gure webgunean argitaratuta dagoen [prozedura](#)n adierazitako pausoei jarraitu behar diezu, ezarritako epeak errespetatuz.

Azkenik, har ezazu kontuan Autonomia-Erkideo edo herri bakoitzaren jaieguna eta lan-ordutegiak beti ez datozela bat; beraz, hemen azterketa egiten denean, norakoan jaieguna bada, edo beraientzat berandu bada, ezin izango duzu norakoan egin. Azterketa, hemen baino egun berean eta ordua berean egingo da, salbuespenik gabe.

Azterketa hauetako batean huts egitearen kasuan, azterketa-berrikuste prozesua Eskolako ikasleentzat jarritakoa da.

## **Egonaldia murriztu/ luzatu egin nahi dut**

### **Egonaldi-murriztea**

Zure norakoa 9 hilbetetarako bada, baina zuk mugikortasuna lauhileko batean zehar bakarrik egin nahi izanez gero eta norako Unibertsitatea ados badago, [Koordinazio eta Nazioarteko Harremanen aroko Errektoreordetza](#)k ezarritako prozedurari jarraitu behar diozue, adierazitako epeetan.

*Gogoratu: egonaldia murrizteko eskatzen baduzu, gero ezin izango duzu luzapenik eskatu.*

### **Egonaldi-luzatzea**

Aurrez ikusitako egonaldia luzatu behar baduzu, eta norako unibertsitatea ados badago, [Koordinazio eta Nazioarteko Harremanen aroko Errektoreordetza](#)k ezarritako prozedurari jarraitu behar diozue, adierazitako epeetan.

## **Eskolako Idazkaritzarekin tramiteak**

GAUR-ean sartzeko pasahitza berria behar baduzu eta oraindik ez zara zure mugikortasuna egiten hasi, Eskolako Idazkaritzara pertsonalki joaten bazara bakarrik emango zaizu. Norakoan zauden bitartean GAUR-ean sartzeko pasahitza berria behar duzun kasuan, [sicue.eib@ehu.eus](mailto:sicue.eib@ehu.eus) helbiderari mezu bat bidali behar diozu, NANA eskaneatuta erantsiz.

Beste izapide guztiak [Eskolako webgunea](#)ren bidez egin ditzakezu, "Idazkaritzako tramiteak" atalean.

## Zure egonaldia bukatzerakoan

### Egonaldi-amaieraren galdeketa eta ziurtagiria

Itzuli baino lehen, edo jadanik etorriak zarenean, online galdeketa labur bat betetzeko eskatuko dizugun mezu bat jasoko duzu. Galdeketa honek, zuen norakoetan detektaturiko arazoen hobekuntza eta zuzenketa lan egiteko balio digu (guk ahal dugun neurrian), mezuan ezarritako epean bete behar duzu.

Norako unbertsitatek irten baino lehen, gogora ezazu egonaldi-amaieraren ziurtagiria haiek sina dezatela behar duzula (GAUR-etik atera dezakezu ereduak) eta [seneca.eib@ehu.eus](mailto:seneca.eib@ehu.eus) helbidera bidaliko duzu.

### Eskolan edo Errektoreordetzan eman behar duzun dokumentazioa

Akordio Akademikoa sinadura guztiekin derrigorrezkoa da baliozkotzea egiteko. Zure mugikortasunean zehar eskaneatuta bidali ez badiguzu, jatorrizko inprimakia eman behar izango diguzu bueltatzerakoan.

### Irakasgaiak baliozkotzea

Irakasgaiak gainditzen dituzunean, emaitzak bidal diezazkigutela tematu behar duzu zuen norako unibertsitatean, zenbat eta lehenago heltzen badira hainbat eta lehenago baliozkotu ahal izango zaizkizulako. Behin jasota, baliozkotu egingo da, eta norakoan hartutako kalifikazioak idatziko dira. Norakoan irakasgairen batean huts egiten baduzu, hemen suspentso gisa agertuko da irakasgaia edo dagokion kreditu kopuru proportzionala.

Deialdia lehenari dagokiona izango da (urtarrila ala maiatza), nahiz eta baliozkotzea irailean egin dadin. Koordinazio eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren arautegiari jarraituz, norakoan irakasgairen bat huts egitekotan, han errekueratu egin behar duzu.

### GrAL baliozkotzea

Lana matrikulatzeko beharrezkodak diren kreditu guztiak behin baliozkotuta eta gainditatuta izan, egin ezazu matrikula eta bidali mezu bat [sicue.eib@ehu.eus](mailto:sicue.eib@ehu.eus)-era. GrALa ADDI-ra igotzeko aukera emango zaizu, eta gero kalifikazioa ipiniko da.

Matrikula egiteko eta nota emateko datak hauexek dira:

Gradu Amaierako Lana	
Defentsaren eskaera eta nota-ematea	Deialdia
✓ 2021eko martxoaren 20a baino lehen	✓ Otsaila
✓ 2021eko uztailaren 20a baino lehen	✓ Ekaina
✓ 2021eko irailaren 7a baino lehen	✓ Iraila
✓ 2021eko irailaren 7a baino beranduago	✓ 2022/2023 ikasturteko 1. deialdia (*)

(\*) Gradu Amaierako Lana, 2022/2023 ikasturtean matrikulatu behar izango duzu.

Behin egonaldia bukatuta, beharrezkoak diren kreditu guztiak gainditu ez badituzu, ezin izango da Lanaren defentsa egin.

GrAL-aren nota ikasturte akademiko baten zehar gordetzen da gehienez. Hau da, mugikortasuna 2021/2022 ikasturtean egiten baduzu, proiektuaren baliozkotzea 2022/2023 ikasturtean zehar egin ahal izango da, baina ez beranduago.

## Eskolarekin harremana

Zure unibertsitate-trukearekin erlazio duten gai eta zalantza guztiak, [sicue.eib@ehu.eus](mailto:sicue.eib@ehu.eus) helbideari bidali behar dizkiozu. Gurekin harremanetan jar zaitezke 94 601 7250 / 94 601 4397 telefono zebankietan ere, edo Eskolako Nazioarteko Harremanen Bulegoan (P1E2 bulegoa), [jendearretako ordutegian](#).

Eta hauxe da guztia. Egonaldi zoriontsu eta onuragarria opa dizugu zure norako-lekuan.

*Agurrak,*

*Nazioarteko Harremanen Zuzendariorde*